


HIRIKO TXALETA
C MAILA

INFANTE DON JAIME 1



Egilea eta data: Eduardo Lagarde, 1932

Deskribapena

Txalet hau Zumalakarregi hiribideko 8 zenbakiaz alboan duenarekin dago lotuta (egile eta data berekoa da). Txalet horietako bakoitza behe oinean eta bi altueratan garatutako bi etxebizitzek osatzen da, bi orientaziorekin eta mehelin batekin, parekatutako etxe moduan. Berezko ezaugarriak kanpoko formetan ditu. Arkitektura modernoaren beste erakusgarri bat da, estilo hori hedatu zeneko urteei egokitzeko interesa azaltzen duena. Etxebizitza horien antolamendua ez zen berria, baina bai bolumen garbien bilaketa, entokatutako fatxada lauen bidez, forma zilindrikoak eta ebaki erdizirkularretako lauza irtenak sartuta, eta zabaltza espazio erabilgarri gisa baloratuta.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokitu da.

2.- Berariazko erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.

C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.